

# SYLVONATUR :
# Basogintza funtzioaniztunari buruzko trukeak

Pirinioetako bi aldeetako hiru baso-elkarteren artean esperientziak, ezagutzak eta egiteko moduak truka ditzaten sustatzea da SYLVONATUR proiektuaren helburua, kontuan izanik baso-kudeaketa produktibo soiletik harago doazen elkarteak direla.
















FILA




## Bazkideen

**Lord Araneko Baso Elkartea**

Casa Nova de Valls z.g.

25285 Yeseros

https://forestlord.cat/**Asociació de propetaris del Montnegre i corredor**

Parc de la Rectoria Vella z.g.,

08470 Sant Celoni (Bartzelona)

https://montnegrecorredor.org/es/**Association Sylvestre GDF (09)**

Les Barrals

09230 Barjac

https://sylvestre09.org/

## Helburuak

Pirinioen bi aldeetan esperientzia berriak integratzeko eta baso-kudeatzaileen, jabeen, erabiltzaileen eta, orokorrean, mendiarekin zerikusia daukaten eragile guztien artean ezagutzak trukatzeko premiatik sortu zen proiektu hau.**Egunak** : 01/06/2022 – 30/11/2023
**Aurrekontua** : 25 000 €

## Proiektuaren ekintzak

Ekintzetan, hainbat bisita egin ziren, zertarako-eta bazkide bakoitzak aurrez aurre dituen erronkak eta erronka horiei aurre egiteko erabiltzen dituen baliabideak erakusteko.

## Emaitzak

SYLVONATUR proiektuak baso-kudeaketa funtzioaniztunaren alderdi guztiak ikusten laguntzen digu, besteak beste gai hauek jorratzen dituelako: baso-suteen prebentzioa, basoko biodibertsitatearen kontserbazioa –eta, are, hobekuntza–, uraren kudeaketa, CO2-aren finkapena, basoaren artzain-erabilera, baso-birsorkuntza, basogintzari lotutako landa-garapena, erabilera soziala, aisialdiguneak eta abar.